

Baliabide klabeak:

Baliabide garrantzitsuenen artean **kapitala, birziklatutako oihalak, belkroaren atalak, makineria industrialak, web gunea eta langileak** egongo lirateke:

- **Kapitala==>** Negozioarekin hasteko beharrezkoena da, **honi esker gainerako baliabideak lortuko** baititugu.
- **Birziklatutako oihalak eta belkroaren ingurukoak==>** Produktuaren **oinarrizko materialak** dira hauek baitira lotu beharko diren zatiak produktua sortzeko.
- **Makineria industrialak==>** Hauen esku produktuaren **kalitatea eta iraunkortasuna** egongo dira eta honen efektibitateari esker arrakasta lortuko dugu. **Umeentzako** produktuaren **materiala iraunkorra** izan behar da, hori erabiltzean ez apurtzeko eta **helduentzako produktuaren materialek kalitate hobea** eduki beharko dute, helduek kalitateari garrantzia ematen diotelako.
- **Web gunea==>** Gure **produktua saltzeko bitartekaria** izango da, honen bidez gure **balio proposamena eta produktua helduko zaiolako** bezeroari. **Hasieran,web gunean soilik eros litekeenez**, bere diseinua eta antolamendua, hots, kudeaketa, garrantzitsua da.
- **Langileak==>** Produktua **sortzeko** eta **makinak erabiltzeko** eta haren **banaketarako langileak** behar ditugu.